

## Fundazioa, 2019ko Europako Arkeologia Ondarearen Saria

Santa Maria Katedrala Fundazioak, Arkeologoen Europako Elkarateak (EAA) ematen duen 2019ko Europako Arkeologia Ondarearen Sari garrantzitsua jaso du. Saria eman izana joan den irailaren 4an jakinarazi zen Bernan (Suitza), EAAren Urteroko 25. Bileraren Irekiera Ekitaldian.

Saria Ramiro González Arabako Diputatu Nagusi eta Fundazioaren Presidenteak eta Agustín Azkarate EHU/UPVko ondare arloko Ikerketa Taldeko eta Kultur Paisaiaren eta Ondarearen UNESCO Katedrako Zuzendariak jaso zuten. Bertan egon ziren, baita ere, Jozean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordea eta

Leandro Cámara Santa Maria Katedrala Fundazioko Zuzendari Teknikoa.

Europako Arkeologia Ondarearen Saria jasotzeko hautagaiak baloratzeko Batzordeak "bikaintasun zientifikoa eta proiektuak epe luzera dituen emaitzak" azpimarratu ditu, eta baita "hiri kudeaketa, turismo eta lurralde berriztatze politika arloetan izan duen eragina ere". Felipe Criado EAAko presidentearen hitzetan, Fundazioa "gure erakundearen politikaren eredu da, arkeologia iraganaren eta gaur egunaren arteko irakurketa inklusiboa eraikitze erabiliz, Europa osorako etorkizun inklusiboa sustatuz".



### Proiektu "aitzindaria eta iraultzailea"

Europako Arkeologia Ondarearen Sariaren epaimahaiak, Santa Maria Katedrala Fundazioaren proiektua definitzen duten bost elementu handitan oinarritu du bere erabakia:

- Estrukturaren aldetik zituen arazoak zirela eta kolapsoaren ateetan zegoen Katedrala zaharberrituz egindako ondarearen babesa eta kontserbazioa. Katedrala, Munduko Ondare Zerrendan dago jasota 2015etik, Donejakue Bidearekin erlaziozaturako ondasun gisa.
- 2002an Europa Nostra Saria jaso zuen eta arkeologia, arkitektura eta historia ikerketa eta hezkuntza, gizarte, hiri eta ekonomia alderdiak bateratzen dituen ikuspegi integralarekin diseinatu den Zaharberritze Plan Gidatzailearen lehentasuneko izaera.
- Katedralaz gain, inguruko hiri eta gizarte ingurunea berreskuratuz izana.
- Eraikinaren ebaluazio arkeologikoa, Vitoria-Gasteizko hiriarren eta bere jatorriaren ezagutza historikoa iraultzeko balio izan duena.
- "Obretan eta Irekita" ekimenaren ikuspegi paregabea, bisitariei zaharberritze lanak eta denboran zehar izan duten bilakaera zuzenean ikusteko aukera eman diena.





## Familei zuzendutako hurrengo bisitak

Familei zuzendutako hurrengo bisitak datozen **larunbatetan, 17:30etan**, izango dira:

<b>Urriaren 19an</b>	euskaraz
<b>Urriaren 26an</b>	gaztelaniaz
<b>Azaroaren 2an</b>	euskaraz
<b>Azaroaren 9an</b>	gaztelaniaz

## World Monuments Fund-en bisita

Joan den irailaren 19an, Katedralak World Monuments Fund-en bisita jaso zuen. Egoitza New Yorken duen elkarte filantropikoak mundu osoko kultur ondarea kontserbatzeko finantza laguntza ematen du.

2007an, ataria artearen ikuspegitik berritzeko proiektuaren finantza-ketan lagundu zuten, eta une honetan, Fundazioarekin batera, Sandstone izenekoaren garapenean hartzen dute parte. Konpostelako Donejakueko Gloriaren ataria berritzeko erabili izan den eta gure katedralako Santa Ana portadaren gainean une honetan egiten ari den esku-hartzean erabiltzen ari den ondarearen dokumentazio programa da.

**Elizpe gaineko areto berriak** Arabako Foru Diputazioaren Gobernu Kontseiluaren bilera jaso du. Joan den irailaren 10ean, Katedralaren goiko solairuan, Elizpearen gainean, egokituta dagoen gune berriak, Arabako Foru Diputazioaren Gobernu Kontseiluaren bilera jaso zuen. Areto berri hori, ebentuatik eta kultur ekitaldiak jasotzera zuzendutako guneen katalogoan sartuko da denbora gutxi barru.



## 31.000 bisitari baino gehiago udan

Aurtengo udako denboraldian (ekainetik abuztura) Katedralak 31.000 bisita baino gehiago jaso ditu, iaz baino %4 gehiago. Jatorriari dagokionez, azpimarratzekoak dira Madrildik, Kataluniatik, Valentziatik eta Andaluziatik etorritako bisitariak. Atzerriko turistak bisitari guztien %15 izan dira, frantsesak, italiarrak eta alemanak, batez ere.

## Hasi dira lanak Aiztogile kaleko 103an

Aiztogile kaleko 103an dagoen eraikina egokitzeko lanak hilabete honetan hasi dira.

Aurreikuspenen arabera 2020ko udaberria baino lehen amaituko diren lanei esker, une honetan oso egoera eskasean dagoen eraikina berreskuratu ahal izango da. Helburua, Fundazioaren kultur eta hezkuntza jardueretarako erabili ahal izango den zentro bilakatzea da.

